

**Larrea:**

«Administrazioan irizpide pribatuak behar dira»

**GASTEIZ**

Administrazio publikoetan «gestiogintza pribatuaren irizpideak» sartu beharko liritekeela esan zuen atzo Jose Luis Larrea Gasteizko Gobernuako Haizienda sailburuak. Modu honetan politikaren publikoen eraginkortasuna areagotuko litzateke eta zerbitzuek kalitate hobea izango lukete Larrearen ustez.

Eusko Jaurlaritzako ki-deak Espainiako Enpresa Kudeaketa eta Kontabilitate Elkarteak (AECA) hiru egunez Gasteizen egin duen jardunaldiaren bukaera ekitaldian egin zituen adierazpenok.

Larrearen esanetan «ezinezkoa da ekonomia konpetitiboa lortzea sektore publikoak ildo honetan hobetzeko ahaleginik egiten ez badu». Ildo honetan Suedia, Erresuma Batua eta Estatu Batuetako administrazioetan aurrera daramatzaten berrikuntza prozesuak gogoratu zituen.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, bertako administrazioaren planaz hitz egitean «desburokratizazio prozesuak debora eta pazientzia» beharko dituela azpimarratu zuen, lan hau «lehentasunezkoa» dela gaineratuz.

Gasteizko Gobernuak datozen urteetarako dituen helburuen artean, industriaren konpetitibitatea «berrikuntza, inbertsio produktibo eta nazioarte mailara hedatzeko ekimenen» bitartez bultzatzea legoke Larrearen arabera.

## Bidasoa eskualderako laguntzak azaroan erabakiko ditu Brusselak

‘Interreg II’ egitarauaren berri eman du Landaburu arloko zuzendariak

**B**idasoa eskualdeak laguntza berriak jasoko ditu ‘Interreg II’ Europako Komunitatearen egitarauaren bitartez. Eneko Landaburu Brusselako politika erregionalerako zuzendariak egitarauaren berri eman zuen atzo Irunen eta laguntzen kopurua azaroan erabakiko dela zehaztu zuen.

**IRUN**

‘Interreg II’ mugaz gaindiko elkarlanerako egitarauak lehen-goaren lana jarraitzen du, hau da, Europako merkatu bakarra indarrean jartzean kalteturik gertatu diren eskualdeen garapenerako planak eta laguntzak bideratuko ditu. Aurreko egitarauaren bitartez Euskal Autonomi Elkarteak 200 milioi pezeta (8,7 milioi libera) jaso zituen Bruselatik, % 63 Bidasoa eskualdearen garapenerako.

Egitarau berriaren bitartez iritsiko diren laguntzak «aurrekoak baino garrantzitsuagoak» izango direla ziurtatu zuen atzo Irunen Eneko Landaburuk, baina datorren azaroan erabakiko direla gaineratu zuen.

**FONDOEN ERABILERARAKO LEHENTASUNAK**

Dena dela, «lurraldea berrantolatuz sortuko liritekeen zonalde berrien garapen ekonomikoari» ematen diola lehentasuna Europako Komunitateak jakinarazi zuen Landaburuk. Ildo honetan Donostia-Baiona eskualdea aipatu zuen.

‘Interreg II’ egitarauaren fon-



Merkatu bakarrarekin Bidasoaldeak mugako negozioa galdu du. KOCH

doak nola erabili behar diren eskualdeko agintarien zeregina dela adierazi zuen EK-ko politika erregionalerako zuzendariak. Hala ere, lanbide heziketa, azpiegiturarako inbertsioak eta enpresa txiki eta ertainentzako laguntzak ere EK-k jartzen dituen lehentasunen artean daudela azpimarratu zuen Landaburuk.

Bidasoa 93 estratagi planean jasotzen diren eskualdeko udalen laguntza eskariak 143 milioi eurokoak direla azaldu zuen Alberto Buen Lacambra Irungo alkateak.

Landaburuk hasiera eman zien atzo Irunen ‘Mugaz gaindiko estratagia eta egitarauak: Interreg II.a prestatuz’ jardunaldiei. Hauen helburua EK-ko egitaraua Bidasoa eskualdean nola gauzatu daitekeen eztabaidatzea litzate-

ke. Ekimen berbera eraman dute aurrera Europako beste eskualde batzuetan ere, «diru honen erabilera eraginkorra lortzearen aditu iritziak jasotzeko» Landabururen arabera. Bere esanetan, «Europako Komunitateko estatuen arteko mugek sortutako zauri historikoak osatzea» litzateke ‘Interreg II’ egitarauaren xedea.

Jardunaldien hasierako ekitaldian Eli Galdos Gipuzkoako diputatuak ere hartu zuen parte. Honek adierazi zuenez, duela bi urte onartutako Gipuzkoa 2000 estratagi proiektuan jasotzen da 600.000 biztanle izango litzatekeen Donostia eta Baiona bitarteko hiri eremu baten ideia, eta berau ‘Interreg II’ egitarauaren bitartez jar daitekeela martxan azaldu zuen.

## ELB sindikatuak informazio lanak eta antolakuntza arlokoak indartuko ditu

L. ETXEHARRETA / BAIONA

Joan zen irailaren 17an Garaziko Izpuran ELB, Euskal Herriko Laborarien Batasuneko ki-deek egin zuten Biltzar Nagusian bi erabaki nagusi hartu zituzten: hilabetekaria den ‘Laborari’ Sindikatuaren aldizkaria astekari bilakatzea eta langile ‘permanente’ bat eratzea sindikatuak hobeki lan egiteko.

Jean Michel Galant, iragan urteetan ‘Herriz Herri’ aldizkariaren buru izan zena, 80ko hamarkadaren lehen urteetan, ‘Laborari’ astekariaren zuzendari izango da. «Pario handia da» dioenez, hilabetekari batek «beharrezkoak diren informazioak ezin baititu eman». Agertu duenez «informazio tekniko asko

sartuko dira. Aipagarria da FDSEA beste Sindikatu nagusiak aspaldidanik ‘Le Sillon’ (ildo) astekaria badaukala.

Pantxoia Etxeberri, orain arte ‘Euskaldun Gazteria’ elkarte kristauaren langile zena hiru urte hauetan ELBk langiletzat hartu berri du. «Gazteei zuzendua» da ELBren aro berri hau. Sindikatuok diotenez gero eta gazte gehiago «normetarik kanpo» jartzen dira nekazaritzan. Bestalde ere ekonomia arazoek edo krisiaren eraginez baserri etxe batzuetan, gero eta gehiagoetan, «gazteek ez dute gurasoen laborari ofizioa jarraitu nahi», nahiz batzuetan etxaldeak bizitzeko behar dena eskaintzen dituen. Ohargarri da ere ELBk langile bat hartzen duela FDSEAk uda

honetan jakinarazi ondoren hark ere Sindikatuaren egiturak biziarazteko langile bat hartzen zuela.

Prentsari egin zizkion deklarazioetan ELBk agertu zuen «11 urteren buruan ELB etapa berrian dela, bere lana premiazkoa bilakatu ondoren borroka nagusi asko eramanez». GATTeke hitzarmena gogorki salatzen dutela errepikatu zuten prentsaurrekoan. Puntua egin zuten ere ardi esnearen inguruko borroketaz agertuz «esne ekoizleen mobilizapenek emaitzak ekarri dituztela». Gaur egun agertzen denez FDSEA Sindikatuarekin daukan eztabaidak du egoera blokatzen ‘Interprofesioa’ deitzen den produkzioa kudeatzen duen erakundearen.

**Elkargik 5.027 milioi pezetako abalak eman ditu**

**DONOSTIA**

Elkargi Elkarrerikiko Garantia Elkarrekin aurtengo lehen zazpi hilabeteetan 5.827 milioi pezetako (253,34 milioi libera) abalak eman dizkie euskal enpresei beren finantzaketarako.

Horrela, iazko datuekin alderatuta izan duen % 11,7ko hazkundea kontuan hartuz, guztira Elkargik abalatu duen finantzaketa 55.711 milioi pezetako da. Elkarteko iturrien arabera, gaur egun 23.245 milioi pezetako abalak ditu indarrean.

Dena den, Elkargik beren finantzakuntzaren hazkunde ere eman dela azpimarratu du, hau da, zorrikotenen kopurua handitu egin dela aurreko urterekin uztailera bitartean. Inbertsiorako joera apal mantentzen dela ere adierazi dute Elkarrerikiko Garantia Elkartetik. Elkargiren berrezko fondoak 166 milioitan handitu dira urtearen lehen erdian, 5.288 milioi pezetara helduz. 6.000tik gora dira elkarteko bazkide diren enpresak, urtariletik uztailera 155 gehiago sartu baitira.

**Fiskaltzak ordenadoreak itzuli dizkio VWi**

**DARMSTADT**

Jose Ignacio Lopez Arriortua Volkswagengereko exekutibo zornotzarraren aurka General Motorsek egindako espioitza salaketaz arduratzen den Darmstadteko fiskaltzak itzuli egin dizkio VW multinazionalari abuztu bukaeran ikerketarako kendu zizkion ordenadoreak.

Fiskaltzako iturrien arabera, «konpainiari kalte ekonomiko handiagoak ez eragiteko» itzuli dizkio aipatutako aparatuak.

Hala ere fiskaltzak ez ditu itzuli Volkswagengerean lantoki nagusian eta Arriortua zein bere kolaboratzaileen etxebizitzetan aurkitutako dokumentu eta disketerik.

Ikerketak noiz arte iraungo duen ez dute argitu fiskaltzako iturriek, ez orain arteko emaitzen berri eman ere.

Epailearen aginduz Volkswagengerekin egindako miaketan 30 ordenagailu, paper ugari eta disketeak hartu zituen fiskaltzak.



## ARBIZUKO UDALA

**XEHETASUN AZTERKETAREN HASIERAKO ONARPENA**

Arbizuko Udal Plenoak, 1993ko irailaren 3an ospatutako bilkuran, 12 Unitate Kontsolidatuko 1 Poligonoko Akerruntza Kaleko 12 zbk.an dagoen 553 partzelaren Xehetasun Azterketaren onarpenera onetsi zuen. Hau JUAN JESUS PETRIATI RAZKIN jaunak sustatu du. Martxoaren 14eko Errege Dekretu legeak xedatutakoarekin adostazunez, informazio publikoan hamabost eguneko epean jartzen da. Aipatu, epea iragarki hau N.A.O.n argitaratzen den hurrengo egunetik hasiko dela kontatzen.

Arbizuko Udala, 1993ko irailaren 17an  
ALKATE-LEHENDAKARIA